



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko urtarrilaren 21a

4. ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A :

Galderak:

- Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak ondare arkeologikoan esku hartzeko proiektuen prestaketaren eta zuzendaritzaren arloan eginikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak Nafarroako inbentario arkeologikoa gauzatzearen arloan eginikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, sustapen, Edizio eta Teknologia Berrien Atalak kulturaren arloan eginikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, sustapen, Edizio eta Teknologia Berrien Atalak kulturaren arloan behar adinako informazio eskura izateko egindakoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Lizarrako San Migueleko nahiz San Pedro de la Rúako eta Iratxeko monasterioko portale erromanikoen egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, 2009ko apirilaren 1etik gaur arte onetsitako enplegu-erregulazioko espedienteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, 2009ko turismo kanpainaren balorazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak ondare arkeologikoaren legezko babesaren arloan eginikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak aztarnategien ikuskapenaren arloan eginikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak ondare arkeologikoaren dokumentatzearen eta berri ematearen arloan eginikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

- Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak ondasun arkeologiko higiezinaren mantentze-lanen eta kudeaketaren arloan eginikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak biltegi arkeologikoaren antolaketaren eta kudeaketaren arloan eginikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak noiz zuzenduko dituen NA-1700 eta NA-1300 errepideetako errotuluak. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, abuztuko azken egunetan A-15 autobioiako 114. kilometro-puntuan jarduerarik ez egoteko arrazoiak buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Lan-taldea, Nafarroako Foru Komunitateko Osasun Publikoaren Plan Estrategikoari buruzkoa. Barne-funtzionamendurako arauak (20. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak ondare arkeologikoan esku hartzeko proiektuen prestaketaren eta zuzendaritzaren arloan eginikoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak ondare arkeologikoan esku hartzeko proiektuen prestaketaren eta zuzendaritzaren arloan eginikoei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko urriaren 2ko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko urriaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Kultur Ondarearen Zuzendaritza Nagusiko Ondare Historikoaren Zerbitzuan Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak proiektuen prestaketari eta zuzendaritzari buruz eginiko galdera bat jaso dugu (PES-00266). Hona erantzuna:

Zer lan eta jarduera egin ditu Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak Nafarroako ondare arkeologikoan esku hartzeko proiektuen prestaketaren eta zuzendaritzaren arloan 2007tik orain arte?

2000n, amaitutzat eman ziren 1980tik 1985era bitarte hiru aztarnategitan eginiko esku-hartzeak. Horiei balioa emateko lanak oso aurreratuta edo bukatuta daude.

Une horretatik aurrera, Nafarroako Gobernuo teknikari arkeologoen zuzeneko esku-hartzeak honako jarduera hauetara bideratu dira:

– Esku hartzeko proiektuak egitearen eta zuzentzearen arloan, monumentu handiak zaharberritzeko proiektu orokorretan esku hartzea. Hori xe da Tuterako katedraleko barne-aldean (2002-2003) eta Artaxoko San Saturnino elizaren barruan (2003) eginiko indusketen kasua.

– Aztarnategi arkeologikoak finkatzeko, seinalezatzeko eta balioan jartzeko esku-hartzeak. Hauexek izan dira lanak:

2007:

– Esku hartzeko proiektuak egitearen eta zuzentzearen arloan, Arellanoko hiri erromatarreko aurriak finkatzea.

– Esku hartzeko proiektuak egitearen eta zuzentzearen arloan, Arellanoko hiri erromatarreko eraikin berrirako museo-proiektua.

– Esku hartzeko proiektuak egitearen eta zuzentzearen arloan, Andelosko hiri erromatarreko aurriak finkatzea.

2008:

– Esku hartzeko proiektuak egitearen eta zuzentzearen arloan, Andelosko hiri erromatarreko aurriei buruzko museo-proiektua.

– Esku hartzeko proiektuak egitearen eta zuzentzearen arloan, Carako hiri erromatarreko aurriak finkatzea.

– Esku hartzeko proiektuak egitearen eta zuzentzearen arloan, zenbait herritako monumentu megalitikoak seinalezatzea (Goizueta, Areso, Arano, Arantza, Lesaka, Labaien, Leitza eta Zubieta).

2009:

– Esku hartzeko proiektuak egitearen eta zuzentzearen arloan, Andelosko hiri erromatarreko sistema hidraulikoa finkatzea.

– Esku hartzeko proiektuak egitearen eta zuzentzearen arloan, zenbait herritako monumentu megalitikoak seinaleztatzea (Leitza, Saldias, Elgorriaga, Sunbilla, Doneztebe, Ituren eta Eratsun).

– Esku hartzeko proiektuak egitearen eta zuzentzearen arloan, Abautz kobazuloko sarbideak eta barnealdea egokitzea (Herri Lanetako Zuzendaritza Nagusiarekin batera).

– Higiezinak finkatzeko eta zaharberritzeko esku-hartzeak. Hauexek izan dira lanak:

2007:

– Esku hartzeko proiektuak egitearen eta zuzentzearen arloan, Irunberriko beneditarren mosaiko erromatarra.

– Esku hartzeko proiektuak egitearen eta zuzentzearen arloan, jatorri desberdinetako material arkeologikoak (Iruña, Viana, Los Arcos, Aribe, Arrada eta abar).

– Esku hartzeko proiektuak egitearen eta zuzentzearen arloan, Arellanoko hiri erromatarreko doliak.

– Esku hartzeko proiektuak egitearen eta zuzentzearen arloan, La Atalayako (Los Arcos) Burdin Aroko herriko materialak.

– Esku hartzeko proiektuak egitearen eta zuzentzearen arloan, Las Eretasko (Berbintzana) Burdin Aroko herriko materialak.

2008:

– Picorderoko (Cascante) dolian esku hartzeko proiektua egitea eta zuzentzea.

– Esku hartzeko proiektuak egitearen eta zuzentzearen arloan, Lizarrako judu-herri berriko materialak.

– Esku hartzeko proiektuak egitearen eta zuzentzearen arloan, Tafallako Erriberri kaleko Antzinaro amaierako nekropoliko materialak.

2009: – Esku hartzeko proiektuak egitearen eta zuzentzearen arloan, Arellanoko hiri erromatarreko doliak.

– Arlo beretan, Oiozko (Urraulbeiti) hiri erromatarreko materialak.

– Presako esku-hartze arkeologikoak. Hauexek izan dira lanak:

2007:

– Esku hartzeko proiektuak egitearen eta zuzentzearen arloan, Santa Crizko (Eslaba) plan zuzendaria (3. urtea).

– Esku hartzeko proiektuak egitearen eta zuzentzearen arloan, Arbeitzako Erdi Aroko nekropoliko indusketa.

– Esku hartzeko proiektuak egitearen eta zuzentzearen arloan, Tafallako Erriberri kaleko Antzinaro amaierako nekropoliko materialak.

– Esku hartzeko proiektuak egitearen eta zuzentzearen arloan, jarraipen arkeologikoa Arellanoko hiri erromatarreko eraikina egiteko lanetan.

– Esku hartzeko proiektuak egitearen eta zuzentzearen arloan, Los Arcosko Los Cascajosko herri neolitikoaren prospekzio geofisikoa.

– Esku hartzeko proiektuak egitearen eta zuzentzearen arloan, Santa Crizko (Eslaba) hiri erromatarreko prospekzio geofisikoa.

– Esku hartzeko proiektuak egitearen eta zuzentzearen arloan, Deikazteluko prospekzio arkeologikoak (udal plana).

– Arlo horietan, Mendazako prospekzio arkeologikoak (udal plana).

– Esku hartzeko proiektuak egitearen eta zuzentzearen arloan, Murillo el Cuendeko prospekzio arkeologikoak (ureztalurretan).

2008:

– Esku hartzeko proiektuak egitearen eta zuzentzearen arloan, arlo beretan, Los Cascajosko C sektoreko indusketa arkeologikoa.

– Esku hartzeko proiektuak egitearen eta zuzentzearen arloan, zundaketak Larregoitiko (Ameskoako Limitaciones mendian) tumulu prehistorikoan.

– Esku hartzeko proiektuak egitearen eta zuzentzearen arloan, Orminéngo (Fitero) hiri erromatarreko zundaketak.

– Arlo beretan, prospekzio geofisikoa Los Cascajosko (Los Arcos) herri neolitikoan.

– Esku hartzeko proiektuak egitearen eta zuzentzearen arloan, Santa Luziako (Iruña) Burdin Aroko herriko prospekzio geofisikoa.

– Esku hartzeko proiektuak egitearen eta zuzentzearen arloan, Santa Colomako (Mendaza) Burdin Aroko herriko prospekzioa.

2009:

– Arlo beretan, zundaketak Genzeko (Artaxoa) hiri erromatarrean.

– Esku hartzeko proiektuak egitearen eta zuzentzearen arloan, zundaketak El Saltoko (Untzue) harpe mesolitikoan.

– Eta prospekzio geofisikoa Los Cascajosko (Los Arcos) herri neolitikoa.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Vianako Printzea Erakundea - Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak Nafarroako inbentario arkeologikoa gauzatzearen arloan eginikoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak Nafarroako inbentario arkeologikoa gauzatzearen arloan eginikoei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko urriaren 2ko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko urriaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak Nafarroako inbentario arkeologikoa gauzatzearen arloan eginikoei buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

2007tik honako jarduerak egin dira Nafarroako inbentario arkeologikoa gauzatzearen arloan:

2007. urtean:

Nafarroako Inbentario Arkeologikoa, XVI. fasea: Lerin (97,97 km²), Oteitza (48,02 km²) eta Galipentzu (partziala, 25,40 km²). Prospekzioko azalera, guztira: 171 km².

Nafarroako katalogo megalitikoa, II. fasea: 263 monumentu (Anue, 6; Arano, 4; Basaburua, 15; Baztan, 130; Donamaria, 5; Etxalar, 4; Goizueta, 20; Lantz, 19; Larraun, 36; Ultzama, 29; Urrotz, 5; Luzaide, 5; besterik, 22).

2008. urtean:

Nafarroako Inbentario Arkeologikoa, XVII-XVIII fasea; urte anitzekoa 2008/9: Elo (22,03 km²), Ibargoiti (53,85 km²), Irunberri (partziala, 56,02 km²), Ledea (18,77 km²), Zangoza (67,16 km²), Oibar (46,55 km²), Esa (21,88 km²), Zare (12,31 km²) eta Leatxe (14,72 km²). Prospekzioko azalera, guztira: 313 km².

Nafarroako katalogo megalitikoa, III. fasea: 252 monumentu (Anue, 1; Araitz, 11; Arano, 1; Arruatzu, 5; Atetz, 5; Basaburua, 2; Baztan, 93; Etxalar, 1; Eratsun, 2; Erro, 1; Esteribar, 5; Ezkurra, 2; Goizueta, 8; Uharte Arakil, 21; Txulapain, 3; Labaien, 1; Lakuntza, 2; Lantz, 1; Larraun, 16; Leitza, 8; Saldias, 1; Sunbilla, 1; Ultzama, 9; Urrotz, 1; Aralar, 37, eta Arbizu, 2).

2009. urtean:

Nafarroako Inbentario Arkeologikoa, XVII-XVIII fasea: Elo (22,03 km²), Ibargoiti (53,85 km²), Irunberri (partziala, 56,02 km²), Ledea (18,77 km²), Zangoza (67,16 km²), Oibar (46,55 km²), Esa (21,88 km²), Zare (12,31 km²) eta Leatxe (14,72 km²). Prospekzioko azalera, guztira: 313 km².

Nafarroako katalogo megalitikoa, IV. fasea: 203 monumentu (Abartzuza, 2; Altsasu, 4; Ameskoa-barren, 6; Artze, 1; Bakaiku, 3; Baztan, 6; Burgi, 1; Ziordia, 2; Zirauki, 2; Etxarri-Aranatz, 13; Etxauri, 1; Eratsun, 2; Erro, 12; Esteribar, 3; Galoze, 1;

Garaioa, 3; Goñi, 4; Izaba, 10; Iturmendi, 1; Urraulgoiti, 10; Lana, 2; Leitza, 1; Litzoain, 3; Mañeru, 2; Nabazkoze, 6; Otsagabia, 15; Olazti, 3; Oloritz, 1; Olo, 1; Orbaitzeta, 2; Oroz-Betelu, 10; Oteitza, 1; Erromantzatua, 16; Erronkari, 3; Urdiain, 8; Urraulbeiti, 1; Uztarrotz, 2; Aezkoa, 1; Andia, 16; Urbasa, 22).

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko urriaren 6an

Vianako Printzea Erakundea - Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, sustapen, Edizio eta Teknologia Berrien Atalak kulturaren arloan eginikoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du sustapen, Edizio eta Teknologia Berrien Atalak kulturaren arloan eginikoei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko urriaren 2ko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko urriaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko zein diren 2003tik herritarren kulturarekiko, kultur komunikazioarekiko eta kulturaren sustapenarekiko sentiberatasuna bultzatzeko Sustapen, Edizio eta Teknologia Berrien Atalak eginiko lanak (PES-270). Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Sustapen, Edizio eta Teknologia Berrien Atala 2007tik existitzen da. Une hartatik gaur arte, herritarren kulturaren arloko sustapen, zabalpen eta sentsibilizazio lanak zenbait argitalpenen –liburuak eta aldizkariak– edizioa izan du ardatz Bestalde, artista nafarrak sustatzeko dokumentalak editatu dira, ataleko argazki-funtsak digitalizatu dira eta laguntzak eman dira sormen literarioko saria bezalako sari-kerak egin eta antolatzen. Atala Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren webgunea gaurkotzeaz eta berrikustez ere arduratzen da.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Vianako Printzea Erakundea - Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, sustapen, Edizio eta Teknologia Berrien Atalak kulturaren arloan behar adinako informazio eskura izateko egindakoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du sustapen, Edizio eta Teknologia Berrien Atalak kulturaren arloan behar adinako informazio eskura izateko egindakoei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko urriaren 2ko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko urriaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko zer azterlan-motak egin dituen 2003tik Sustapen, Edizio eta Teknologia Berrien Atalak kulturari buruzko informazioa edukitzeko (PES-271). Hona Vianako Printzea Erakundea-

Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Sustapen, Edizio eta Teknologia Berrien Atala 2007tik existitzen da. Urte horretatik aurrera ez da arduratu kulturari buruzko inongo azterlanik egiteaz. Haren lanaren ardatza zenbait argitalpenen –liburuak eta aldizkariak– edizioa izan da. Bestela ere, artista nafarrak sustatzeko dokumentalak editatu dira, ataleko argazki-funtsak digitalizatu dira eta laguntzak eman dira sormen literarioko saria bezalako sariketarako egin eta antolatzeko. Departamentuko webgunea eguneratzeaz eta berrikustez ere arduratu da.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Vianako Printzea Erakundea - Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Lizarrako San Migueleko nahiz San Pedro de la Rúako eta Iratxeko monasterioko portale erromanikoen egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Román Felones Morrás jaunak galdera egin du Lizarrako San Migueleko nahiz San Pedro de la Rúako eta Iratxeko monasterioko portale erromanikoen egoerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko urriaren 9ko A.O., 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko urriaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak PES-272 galdera egin du. Hona Vianako Printzea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Gobernuarentzat kezagarria al da Lizarrako San Miguel elizako portalea? Ba al du asmorik portale horren hondatze-maila neurtuko duen azterketarik egiteko? Beste jarduerarik egitea pentsatu al du gai horri dagokionez? Noiz egiteko asmoa du?

Portalearen egoera ez da kezagarria. Hain zuzen ere, 2009ko lehen seihilekoan, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Ondare Higigarrien eta Ondarearen Erregistroko Ataleko eta Ondare Arkitektonikoaren Ataleko teknikariek portalearen bi ikuskapen egin dituzte, eta 2005ean portaleari buruz hartutako irudiekin alderatuta, ez da atzeman irudien narriadura asko handitu denik. Bai atzeman zen, ordea, gatz batzuk ageri zirela, babes lanen ondorengo lehorte prozesu mantso eta normalaren ondorioz.

Lizarrako San Miguel elizako iparraldeko portalea kristalezko atari batez babestuta dago, 1989an elizaren kanpoko aldean eginiko lanen ondorioz. Lan horietan, teilatuak eta fatxadak konpondu ziren. 2004an, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuak konponketa-lan batzuk egin zituen beirazko atariaren junturen zigilatzeetan. Parrokia arduratu izan da estalkiak garbitzeaz, tenpluaren titularra baita.

Hala eta guztiz ere, departamentuko teknikariak portalearen egoeraren jarraipen sistematikoa egiten ari dira, harriaren egoera sakonkiago aztertu beharko balitz ere.

2.- Nafarroako Gobernuarentzat kezagarria al da Lizarrako San Pedro de la Rúa elizako portalearen egoera? Zer plan aurreikusten da portalea konpontzeko, multzo osoa zaharberritzeko prozesuaren barruan?

Portalearen egoera ez da kezagarria, baina ikusita une hauetan Nafarroako Gobernuak modu integrean esku hartzen ari dela monumentu osoan, arrazoizkoa da hartan ere esku hartzea.

Iparaldeko portalearen kontserbazio egoerari eta zaharberritzeko proposamenari buruzko azterlanaren idazketa kontratatu da.

Behin azterlan hori eskuratzen denean, portalearen berariazko zaharberritze proiektua egin ahalko da, Nafarroa 2012 Programan jasotako zaharberritze integraleko lanetan sar dadin.

3.- Nafarroako Gobernuarentzat kezagarria al da Iratxeko monasterioko iparraldeko portalearen egoera? Ba al du asmorik portale horren hondatze-maila neurtuko duen azterketarik egiteko? Monasterioa paradore bihurtuko dela-eta, Gobernuak aurreikusten al du portalean jarduera berarizkorik egitea? Noiz egiteko asmoa du?

Iratxeko Monasterioko iparraldeko portalean ez da zaharberritze lanik egin, eta hartan dagoen narriadura normala da, iparraldeko orientazioa, harri mota eta antzintasuna kontuan izanda. Nolanahi ere, elizaren gainerakoan eginiko zaharberritze lan bera eskatzen du, kokatuta dagoen iparraldeko nabeko kanpoko hormatalarekin gertatzen den bezala.

Balitzeko jarduera hori monasterioko ingurunea antolatuzko proiektuarekin lotuta dago. Proiektu hori idazten ari da jada, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuak enkargatuta. Hala eta guztiz ere, aldi berean, dena dago, neurri handi batean, Paradore Nazionalaren proiektuaren menpean; izan ere, proiektu horrek monumentuan egin beharreko jarduerak baldintzatuko ditu.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Vianako Printzea Erakundea - Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, 2009ko apirilaren 1etik gaur arte onetsitako enplegu-erregulazioko espedientei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du 2009ko apirilaren 1etik gaur arte onetsitako enplegu-erregulazioko espedientei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko urriaren 9ko A.O., 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko urriaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa jaunak galdera egin du 2009ko apirilaren 1etik aurrerako enplegu-erregulazioko datuei buruz (PES-273/09). Hona hemen Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Honi erantsita doa zerrenda bat, eskaturiko datuak biltzen dituena. Lan-kontratua eteteko enplegu-erregulazioko espedienteen egiazko aplikazioak ukituriko langileen kopuruaz galdetzen duen puntuari dagokionez, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak ez dauka daturik egiazko aplikazioari buruz, enpresek erabilitako etete-egunei dagokienez.

Halaber helarazi dugu hilabetez hilabete enplegu-erregulazioko espedienteek izandako bilakaera, 2009. urtean izandako bilakaera aztertu ahal izateko.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan.)

Galdera, 2009ko turismo kanpainaren balorazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du 2009ko turismo kanpainaren balorazioari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko irailaren 25eko A.O., 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko urriaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du (PES 254), jakiteko Nafarroako Gobernuak nola balioesten duen 2009ko udako turismo-kanpaina eta zer irizten zaion Si vienes a

Navarra, las visitas te salen gratis kanpainari. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Zer iritzi dauka Nafarroako Gobernuak 2009ko udako turismo-kanpainari buruz?

Orain arte (irailaren 26a) eskuragarri dagoen informazioarekin, Gobernuaren balioespena positiboa da.

Datuak honako hauek dira:

1.- Abuztua

Ostatu-establezimenduak (hotelak, hostalak eta pentsioak)

Ostatu-gauek % 2,8ko igoera izan dute. (Espainia osoan, denbora-tarte berean, %-5).

Bidaiarien %3,1eko beherakada (Espainia osoan, %-4,9).

Zenbaki absolutuetan, 85.302 bidaiarik 180.687 ostatu-gau egin zituzten, eta kopuru horiek dagozkio 2,12 eguneko batez besteko egonaldi bati; hots, aurreko urteko hilabete berean izandakoa baino %6 luzeagoa.

Turisten jatorria: Espainiako egoiliarak izan ziren bisitarien % 75,3, eta ostatu-gauen % 82,2 egin zituzten.

Autonomia erkidegoen eta bisitarien hurrenkaren arabera, Nafarroa gehien bisitatu zutenak katalanak, madrildarrak eta Euskal Autonomia Erkidegokoak izan ziren, honako kopuruetan, hurrenez hurren: % 27,5, % 17,9 eta % 15,1.

Oharra: Hostalak eta pentsioak aspalditxotik ari dira bidaiarien eta ostatu-gauen beherakada nabarmena izaten. Horrek eragin nabarmena dauka "Ostatu-establezimenduak" atalean, zeinean haiek sartuta baitaude, halaber. Hotelak bakarrik aintzat hartzen badira, hots, hostalak eta pentsioak sartu gabe, hazkundea positiboa da bai bidaiarien bai ostatu-gauen ikuspegitik.

Hotelak

Hotelei buruzko abuztuko datua ez dago eskuragarri informazio hau prestatzeko garaian. Dena den, Iruñeko Hotelen Elkartek ohar bat helarazi du, eta bertan dio abuztuko hotel-okupazioak % 5 egin duela gora. Horretaz gain, esaten du zenbaki horrek alde argia erakusten duela nazio-esparruan hotel-sektoreak pairatzen duen joera orokorraren aldean, haren salmenta-kopuruek beherakada nabarmena izan baitute.

Ostatu-establezimenduez bestelako ostata-tzeak

Abuztuko informazioa ez dago eskuragarri.

2.-Urtarriletik uztaiera bitarteko aldia

Ostatu-establezimenduak (hotelak, hostalak eta pentsioak)

Hotelak:

Bidaiariak % 2,7ko igoera izan dute.

Ostatu-gauek % 2,9ko igoera izan dute.

Hostalak eta pentsioak:

Bidaiariak % 32,4ko beherakada izan dute.

Ostatu-gauek % 30,2ko beherakada izan dute.

Ostatu-establezimenduez bestelako ostata-tzeak

Bidaiariak % 9,8ko igoera izan dute.

Ostatu-gauek % 6,6ko igoera izan dute.

Camping-erabiltzaileen gorakada aipagarria da (2008an baino % 17,5 gehiago). Apartamentu turistikoek beste hilabete batez igotzen segitzen dute. Uztaiera arte, bidaiariak % 9,4ko gorakada daukate, eta haien ostatu-gauek, % 34,2koa.

Bisitarien jatorria

Nazionalak, eskariaren % 79,1.

Atzerritarak, % 20,9

Bisitarien jatorriaren arabera: Euskal Autonomia Erkidegoa (guztizkoaren % 17,5), Europar Batasuna Espainia salbu (% 15,7), Madril (%13,6), Nafarroa (% 11,3) eta Katalunia (% 11).

3.- Frontur. Turista atzerritarren mugimenduari buruzko inkesta.

Uztaiera

Bidaiari atzerritarren % 25,3ko gorakada (batez besteko nazionala: %-6,1).

Nafarroa lehen postuan egon zen ranking nazionalan.

Abuztua

Bidaiariak % 4,5eko gorakada (batez besteko nazionala: %-8,1).

Urtarrila-abuztua

% 1,5eko gorakada. (Nazioko batez bestekoa, % -10).

Aldi honetan, Nafarroa ranking nazionaleko hirugarren postuan egon da. Soilik lau erkidegok, Nafarroa horien artean dagoela, dauzkate ehuneko positiboak.

4.- Gobernuaren irizpena

Datu horiei erreparatuta, baieztatu daitezke ezen, testuinguru oso zailean, Nafarroak portaera hobea izan duela nazioko batez bestekoak baino.

Emaitzak asegarriak dira, jarduera ekonomikoetan zenbakiei eutsi baitzaie, eta lehiakide diren beste helmuga batzuen indizeak gaitzetez lortu delako.

Gainera, ez da enpresa-itxierarik izan, ez eta enplegu handieneko enpresen plantilletan murriztapen nabarmenik ere. Alderantziz: turismo-eskaintza pribatuak gora egin du. Hori seinalea da kapital pribatuak garapenean dagoen sektore ekonomiko baten apustua egin izanarena, nahiz eta une honetan bilakaera motelagoa izan, krisia dela-eta.

Bilakaera positiboa izan da hoteletan. Hazkundea izan da, noiz eta erkidego gehienek hazkunde negatiboak izan dituztenean.

Oro har, ostatu-establezimenduen gorabeheren baldintzatzaile handia da hostal eta pentsioen portaera, zeina ez baita krisiaren eraginpekoa, baizik eta aspalditik nabari den joera baten ondoriozkoa.

Ostatu-establezimenduez bestelakoan bilakae-
ra ona da.

5.- Sektorearen irizpena

Iruñeko Hotelen Elkartek, abuztuko datuak bil-tzen dituen bere oharrean, baieztatzen du ezen datu horiek, kontuan harturik egoera ekonomikoa eta Estatuko ostalaritza-sektorearen koiuntura, pozez betetzen dituela hotel-arduradunak eta kon-fiantza ematen dietela, bezeroek egoki erantzun eta Iruña helmuga turistiko gisa hautatzen baitute.

Halaber baieztatzen du ezen okupazioen gora-kada izan dela jatorri nazionaleko bezeroen igoeraren ondoriozkoa, zeina, neurri handi batean, Nafarroako Gobernuko Turismo Departamentuak krisiaren aurkako neurri gisa egindako sustapen-kanpainak bultzatua izan baita.

Departamentuan beste iritzi batzuk ere jaso dira, guztiak onespenezkoak.

Si vienes a Navarra, las visitas te salen gratis kanpaina nola balioesten da? "Navarra te recibe gratis" da kanpainaren egiazko goiburua.

1.- Opari-bonuen kopurua

Gobernuaren iritzia positiboa da.

Neurriaren helburua honakoa zen:

– Foru Komunitateko turismoa dinamizatzea eta bisitariak erakartzea.

– Nafarroaren eskaintza turistikoa ezagutaraztea.

– Nafarroaren balizko bezeroen arreta bereganatzea, jatorrizko merkatuetan publizitate-kanpai-nak eta zuzeneko sustapena eginez.

– Ostatu, ekipamendu, ostalaritza eta zerbitzu turistikoen jarduerari bultzada ematea.

Neurri hori, Espainian aitzindaria eta bakarra izateagatik, nabarmentze-argudio paregabea izan da merkatu gutxietan.

Nafarroa bere zuzeneko lehiakideengandik desberdintzeko elementu gisa balio izan du, eta halaxe hauteman dute merkatuek.

Gure erkidegora bidaiatzeko eta bertan egote-ko aurrekontuan benetako deskontua eragin du eta, beraz, kontsumitzailea proposamen horretaz ohartu da, eta erakargarria iruditu zaio. Horregatik, neurria iritsi egin da kontsumo-aurrezpenarekin sentsibilizatuta dauden kontsumitzaileenganaino.

Ostatuei modua eman die proposamen edo eskaintza bereziak prestatzeko, beren prezioei kanpainako bisitak eta deskontuak erantsiz.

Lagungarria izan da Nafarroan dauden turis-mo-produktu ugarien existentzia ezagutarazteko; horietako batzuk, berriak, eta beste batzuk, behar bezain ezagunak ez direnak.

Nafarroan ostatu-gauen beherakada geraraz-ten lagundu du, eta haien portzentajea igotzen, aurreko urteko epe berekoarekin alderatuta.

Erkidegoaren irudia hobetu du. Gainera, Nafa-rroara bisitan etorri eta egonaldiaz gozatu duten pertsonak preskriptore-lana eginen dute, eta irudi positiboa pertsona askorenganaino iristea ahalbi-detuko dute.

2.- Sektorearen irizpena

Iruñeko Hotelen Elkartek, abuztuko datuak jasotzen dituen bere oharrean, esaten du okupa-zioen gorakada izan dela jatorri nazionaleko bezeroen igoeraren ondoriozkoa, zeina, neurri handi batean, Nafarroako Gobernuko Turismo Departamentuak krisiaren aurkako neurri gisa egindako sustapen-kanpainak bultzatua izan baita. Kultura eta Turismo Departamentuak sektore honetan diharduten Nafarroako beste elkarte eta enpresa batzuen idazkiak jaso ditu, eta horietan oso interesgarri irizten zaio egindako kanpainari. Horietako batzuek eskatzen dute kanpainak aurre-ra segi dezala.

3.- Bisitarien irizpena

Kultura eta Turismo Departamentuak zenbait bisitarien mezuak jaso ditu, ekimen honengatik eskerrak ematen dituztenak. Nafarroako Gobernu-aren sareko turismo-bulegoetan ere egiaztatu ahal izan da onespenezko hori.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamen-tuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatuta-koa betez.

Iruñean, 2009ko urriaren 19an

Vianako Printzea Erakundea - Kultura eta Turis-mo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak ondare arkeologikoaren legezko babesaren arloan eginikoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak ondare arkeologikoaren legezko babesaren arloan eginikoei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko urriaren 2ko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko urriaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak Nafarroako ondare arkeologikoaren legezko babesaren arloan eginikoei buruz (PES-263). Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Arkeologia Atalaren jarduera zentratuta dago Nafarroako Ondare Kulturalari buruzko legeetan aurreikusitako babes neurriak betetzean. Horretarako, era guztietako txostenak, ondareari buruzko adierazpenak, lan ikuskapenak, aurkikuntzen

garrantzi arkeologikoari buruzko baloraziak eta abar egiten dira, bai atalak berak garatzen dituen proiektu berekietan, bai Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko beste zerbitzu batzuen bidez abian jartzen diren ondarearen arloko proiektuetan ere.

2007an, 94 esku-hartze eta 290 proiektu eraman ziren aurrera; 2008an, berriz, 90 esku-hartze eta 239 proiektu; 2009an, 94 esku-hartze eta 222 proiektu.

Bestalde, atal horrek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren beste sektore batzuen arauen arabera jarduten du bai eta gure erkidegoko gune historiko garrantzitsuenen hirigintza-erregelamenduen arabera ere. Era askotako proiektuei buruzko txostenak eta jarduerak egiten ditu (errepideak, ureztalurrak, aparkalekuak, berrurbanizatzeko lanak, eguzki baratzeak, araztegiak, parke eolikoak, gasbideak, agregakinen ustiatzeak eta abar), hain zuzen ere jardueraren fase batzuetan ondare arkeologikoan eragin dezaketean proiektuetan.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Vianako Printzea Erakundea - Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak aztarnategien ikuskapenaren arloan eginkoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak aztarnategien ikuskapenaren arloan eginkoei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko urriaren 2ko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko urriaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak Nafarroako aztarnategien ikuskapenaren arloan 2007tik orain arte egin dituen jardueri buruz (PES-264). Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Arkeologoa/Langileburua	2007	2008	2009 (Partziala)	Guztira
Javier Armendáriz	73	156	73	302
Jesús García	168	184	80	432
Jesús Sesma	204	205	141	550
Guztira	445	545	294	1.284

Taulan ez dira jaso Iruñean eginiko obra-ikuskapenak.

Ikuskapen-irteera guztiak, lanpostuz kanpora egindakoak, hierarkian nagusi denak baimendu ditu. Joan-etorrietan atalaren ibilgailu ofiziala erabiltzen da.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamen-

Nafarroako Foru Komunitatean indusketa eta prospekzio arkeologikoak egiteko lizentziak emateari buruzko urriaren 3ko 218/1986 Foru Dekretuak honakoa dio 13. artikuluan: "Baimendutako lanen ikuskatzea eta jarraipena Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zerbitzuak egin beharko du".

Arkeologia Atalaren ikuskapenak honela egiten dira:

– Lanen hasieran, esku hartzeko baimena berariaz eskatzen denean, funtsean jardueren kokalekuaren zuinketarako.

– Hitzartutako nahiz hitzartu gabeko obra-bisitaldietan, lanen garapenaren arabera edo aztarnen aurkikuntzaren arabera; kontserbazioari buruzko arazoak daudenean eta abar.

– Lanen amaieran, ondasunen amaierako destinoari buruzko alderdiak ebatzi behar direnean, oro har obrak egiten ari diren bitartean.

– Aztarnategien kontserbazio-egoera egiaztatzeko ikuskapenak.

– Aurkikuntzei buruzko albisteen egiaztapena, salaketak eta abar.

Hauexek dira egin diren ikuskapenak:

tuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Vianako Printzea Erakundea - Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak ondare arkeologikoaren dokumentatzearen eta berri ematearen arloan eginikoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak ondare arkeologikoaren dokumentatzearen eta berri ematearen arloan eginikoei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko urriaren 2ko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko urriaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdetu du (PES 265) zer lan eta jarduera egin dituen 2007tik orain arte Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak, ondare arkeologikoaren dokumentatzearen eta berri ematearen arloan. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Honako hauek dira **dokumentatzearen alorrean** aurrera eramandako jarduketak:

– Aztarnategi arkeologikoen katalogazioa: Nafarroako Inbentario Arkeologikoa eta Nafarroako Monumentu megalitikoen katalogoa osatuz. Langintza horri buruzko informazioa jadanik emana dugu, PES-269an.

– Baimendutako esku-hartze arkeologikoei buruz –hala norberarenak nola besteenak– oroitidazki-txostenak sartu eta egitea. Horiek entregatzeko epea baimena ematen den egunetik kontatzen hasita urtebetekoa da; horregatik, horri buruzko datuak, oro har, PES-236 zela-eta emandako informazioan jasotzen dira.

Arkeologia Atalak 2009an zehar Artaxoako San Saturninoko indusketa arkeologikoei buruzko oroitidazkia idatzi du. Oroitidazki hori argitaratzearen zain gaude. 2009an zehar, Los Cascajosko (Los Arcos) herri neolitikoiari eta La Sagako (Kaseda)

hilobiari buruzko oroitidazkiaren idazketa-lanak abian dira, zeinak 2010ean amaituko baitira.

Honako hauek dira berri **ematearen alorrean** aurrera eramandako jarduketak:

– Argitalpenen edizioa: Trabajos de Arqueología Navarra aldizkari espezializatu editatzen da, interesik handieneko artikulua argitaratzen dituen. 20. zenbakia argitaratu da, 2007-2008koa, zein 11 artikulua biltzen baitira. Une honetan 2009ko alea prestaketa-fasean dago.

Honako liburu hauek ere argitaratu dira:

– Askoren artean (2007). *La tierra te sea leve. Arqueología de la muerte en Navarra*. Erakusketa-katalogoa.

– Armendáriz Martija, J. (2009). *De aldeas a ciudades. El poblamiento durante el primer milenio a.C. en Navarra*.

– Mezquíriz Irujo, M^a A. (2009). *Andelo, ciudad romana*.

Bestalde, Nafarroako Ondare Historikoa zaintzeko Fundazioarekin lankidetzan, Arkeologia Ataleko teknikariek ekarpenak egin dituzte honako argitalpenetan:

– Askoren Artean (2009). *San Saturnino de Artajona*.

– Erakusketak egitea: Arkeologia Ataleko teknikariak honako erakusketa hauetan aritu dira komisario-lanetan:

– “La Tierra te sea leve. Arqueología de la muerte en Navarra”. Nafarroako Museoa. 2007.

– “De la cabaña a la casa”. Castejóngo Museoa. 2007.

– Aztarnategi arkeologikoak balioan jartzea.

Jarduketak dira PES-266ri emandako erantzunean zehazturikoak, zeinak honela laburbil daitezkeen:

– *Arellanoko villa erromatarra*: proiektu museo-grafikoa prestatzea. Horrek bere baitan hartzen du azalpen-panelak prestatzea, mosaikoak birjartzea, musen mosaikoa erreplikatzeko, villako bodegan

doliak eta lararioa birjartzea, kanpoko ibilbideak egokitzea, kanpoko lorategi-lanak, eta abar.

– *Andelosko hiri erromatarra*: proiektu museo-grafikoa prestatzea, zeinak barnean hartzen baitu, hiriaren esparruan, azalpen-panelak prestatzea, ibilbideak egokitzea eta behatze-plataforma bat instalatzea. Gaur egun, prestaketa-fasean dago dibulgaziozko gida bat, eta argitaratuta daude DVD bat eta aipaturiko Andelo, ciudad romana liburua.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Vianako Printzea Erakundea - Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak ondasun arkeologiko higiezinaren mantentze-lanen eta kudeaketaren arloan eginkoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak ondasun arkeologiko higiezinaren mantentze-lanen eta kudeaketaren arloan eginkoei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko urriaren 2ko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko urriaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du ondasun arkeologiko higiezinaren (aztarnategiak) mantentze-lanen eta kudeaketaren arloan eginkoei buruz (PES-267). Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Jendearentzako irekitako aztarnategien kudeaketa: Arrada, Andelos eta Arellano. 2007tik 2009ra Kultura Zuzendaritza Nagusiak sustatzen eta kontrolatzen zuen. 2009ko hasieratik, lan horiek Turismo Zuzendaritza Nagusiaren esku geratu ziren.

Kudeaketak aztarnategien garbiketa eta zaintza ere hartzen ditu, bai eta bisitariarentzako arreta ere, betiere Arkeologia Ataleko teknikarien ikuskatzailetzaren pean eta haien laguntzarekin.

Induskatutako aztarnak ikusteko moduan daudden gainerako aztarnategietan urtero kontserbazio eta mantentze lanak egiten dira (sasiak kendu, zaborra bildu, hesiak mantendu eta abar). Hala ere, finkatze lanak ere egiten dira; esate baterako 2007an Arradako harresi-inguruan eginkoak, Andelosen 2008an eginkoak edo Abaunzko kobazuloan 2009an eginkoak.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Vianako Printzea Erakundea - Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak biltegi arkeologikoaren antolaketaren eta kudeaketaren arloan eginikoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak biltegi arkeologikoaren antolaketaren eta kudeaketaren arloan eginikoei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko urriaren 2ko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko urriaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak biltegi arkeologikoaren antolaketaren eta kudeaketaren arloan 2007tik orain arte egin dituen jardueri buruz (PES-268). Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Foru Administrazioari dagokio Nafarroako Foru Komunitatean eginiko esku-hartze arkeologikoan aurkitutako aztarna guztiak kontserbatzea eta zaintzea. Material arkeologikoak biltegitratzeaz eta babesteaz arduratzen da.

Honakoak dira biltegi horietan egiten diren lanak:

– Funts arkeologikoak zaharberritzea: PES 266 parlamentu-galderaren erantzunean zehaztutakoak.

– Ikerlarien kontsultei erantzutea. Zeregin horretan aste bakoitzeko astearteak ematen dira.

– Esku-hartze arkeologikoetako funtsak jasotzea. 2007tik 2009ra honako funtsak sartu dira:

2007:

– Izkoko El Montico herrixkako indusketako materialak.

– Eloko Arizkoa nekropoliaren eta herrixkaren indusketako materialak.

– Eusko Jaurlaritzako Kultura Departamentuan gordailatutako Nafarroako trikuharrietako materialak (Obioneta –iparraldea eta hegoaldea–, Beotegiko Murkoa, Balenkaleku –iparraldea–, Portuzargaña –ekialdea eta mendebaldea–, Garraztita, Maantsa, Trikuarri, Artekosaro, La Cañada, Sokillete, Gorriti-Uitzi 1927, Goldanburu eta Baratzeko Erreka).

– La Custodia (Viana). Agustín Karimuagaren gordailua.

– Ziraukiko Aizibita trikuharriko industria litikoa.
– Ziraukiko Txarrakadia trikuharriko industria litiko eta zeramikoa.

– Mañeruko Morea trikuharriko material arkeologikoak.

– Mañeruko Sotoaldea trikuharriko material arkeologikoak eta giza-gorpuzkiak.

– Iruñeko Gaztelu Plazako materialak (651 eta 652 zenbakiak).

– Iruñeko San Nikolas Plazako giza-gorpuzkiak.

– Iruñeko Ansoleaga kaleko giza-gorpuzkiak.

– Castejóngo El Montecillo hiri erromatarreko materialak.

– Olorizko (II. fasea), Puiuko eta Untzueko dermioetako prospekzioetako material arkeologikoak.

– Iruñeko Kale Nagusiko 21. zenbakiko txanpon erromatarra.

– Tafallako Erriberri kaleko nekropoliko material arkeologikoak eta giza-gorpuzkiak.

– Arantzakok Zapellene kobazuloko giza-gorpuzkiak.

– Zarrakazteluko La Oliva monasterioko azulejoak.

– Iruñeko Fuente de la Teja iturriko hodi zeramikoak.

– Oibarko Gazteluko material arkeologikoak.

– Iruñeko Euskal Jai pilotalekuaren antzinako orubeko material arkeologikoak.

2008:

– Labioko San Pablo eta Santa Felizia elizako material arkeologikoak eta giza-gorpuzkiak.

– Artaxonako El Cercoko 19 kubeta eta ontzi bat.

– Iruñeko El Condestable nekropoliko giza-gorpuzkiak.

– Nabazko aizkora megalitikoa (Pascal Dome-nauk emana).

– Iruñeko Kondestablearen Jauregiko, Konpainia kaleko, Merced kaleko eta Aldapako San Fermin kaleko material hautatuak.

– Castejóngo El Castillo nekropoliko 4. kanpainako material arkeologikoak.

– Iruñeko Orreaga etorbideko aparkalekuko materialak: 169 kubeta.

– Los Arcosko Los Cascajosko C sektoreko indusketako materialak: 22 kubeta.

– Mendazako Santa Colomako materialak: 2 kubeta.

– Lizarrako judu-herriko materialak: 2 kubeta.

– Zenbait material (Armando Llanos gordailua).

– Arangurengo zenbait material (Juan M^a Martínez Txoperena gordailua).

2009:

– Los Arcosko Las Roturas II aztarnategiko materialak: 15 kubeta.

– Tuterako Las Labradas aztarnategiko materialak: 2 kubeta.

– Iruñeko Jarauta kaleko 82. zenbakiko materialak: kubeta bat.

– Iruñeko Atari Berriko material arkitektonikoak: 2 palet.

– Iruñeko Nabarrerriako Burgoko material arkitektonikoak: 9 palet.

– Abaunzko (Arraitz-Orkin) kobazuloko 1. eta 2. blokeak.

– Iruñeko Santa Luzia harriko mugarriak.

– Beriango San Esteban nekropoliko material arkeologikoak: 5 kubeta.

– Iturmendiko Saratebarrengo materialak.

– Mendigorriako Andelosko pitxar erromatarra.

– Tuterako Muro kaleko 45. zenbakiko materialak.

– Tuterako Cortes kaleko 28. zenbakiko materialak.

– Tuterako Dominikak kaleko 4. zenbakiko materialak.

– Tuterako Portal kaleko 21. zenbakiko materialak.

– Erriberriko San Blas hiri erromatarreko materialak.

– Berbintzanako Las Eretas aztarnategiko 1994, 1995 eta 1996ko kanpainetako material arkeologikoak.

– Corellako La Torrecilla hiri erromatarreko material arkeologikoak.

– Iruñeko La Merced kaleko material arkeologikoak.

– Iruñeko Konpainia kaleko material arkeologikoak.

– Iruñeko Kuria kaleko material arkeologikoak.

– Iruñeko Dormitallería kaleko material arkeologikoak.

– Buñuelgo La Noriako materiala arkeologikoak.

– Descalzos kaleko 23., 25. eta 27. zenbakieta-ko materialak.

– Iruñeko Zitudadelako material arkeologikoak.

– Iruñeko Aldapako San Fermin plazako material arkeologikoak.

– Material arkeologikoen irteerak, aldi baterako erakusketetarako:

2007:

– Tuterako Museo Dekalaleko erakusketa iraunkorra (Tres Montesko ontzi kanpaniformea, Arguedasko El Castejóngo torkeak, Fiteroko hiru gerriko-krisket eta Tuterako Katedraleko indusketeko 12 pieza).

– Tuterako meskita nagusiko modiloia, “Rudes-indus. Santiago. A cultura europea do século X” erakusketarako.”

– Tuterako lehoien ataiforra, “El Cid. Del hombre a la leyenda” erakusketarako.

– “La Tierra te sea leve” erakusketarako materialak. Nafarroako Museoa. 2007ko azaroa.

– “De la cabaña a la casa” erakusketarako materialak. Castejóngo Museoa. 2007ko azaroa.

2008:	– Artaxonako El Cercoko harrera-zentroan erakusketa egiteko materialak.
– Gaztelu Plazako aztarna antropologikoak, “Esquelets malats” erakusketarako.	Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.
– “Iruña berriz aurkitua” erakusketarako material arkeologikoak. Iruñeko Kondestablearen Jauregia.	Iruñean, 2009ko urriaren 26an
2009:	Vianako Printzea Erakundea - Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón
– Lizarrako Judu-herri berriko material arkeologikoak, Lizarrako Fray Diego kultur etxeko erakusketa arkeologikorako.	

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak noiz zuzenduko dituen NA-1700 eta NA-1300 errepideetako errotuluak.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernuak noiz zuzenduko dituen NA-1700 eta NA-1300 errepideetako errotuluak.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko urriaren 9ko A.O., 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko urriaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du NA-1700 eta NA-1300 errepideetako bide-seinalizazioan erabilitako toponimiari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak 2006ko irailaren 25ean hartutako erabakiaren bitartez onetsi zen, Gobernuaren irailaren 18ko erabakiaren garapen modura, zeinaren bidez euskararen alorreko zenbait

neurri hartzen ziren, eta erabaki horrek aipaturiko jarduketa-plana onetsi bitarterako, instrukzio bat, Nafarroako Errepide Sarearen seinalizazioa gaztelaniaz eta euskaraz errotulatzeari buruzkoa. Erabaki horretako bigarren puntuak ezartzen du honela aplikatuko dela instrukzioa:

a) Eraikuntzan dauden obretan ipini beharreko bide-seinalizazioko errotulu berrietan.

b) Kontserbazio, mantentze edo berritzearen ondoriozko seinalizazio-ordezpen aldizkakoetan. Egun honetatik aurrera berariaz hondatuak izaten diren seinaleak beren jatorrizko egoerara leheneratuko dira, garbiketa bidez nahiz ordezkoko seinalea ipiniz.

Parlamentu-galderan aipaturiko kartelei 2.b) atalean ezarritakoa aplikatzen zaie; horregatik, zuzenduak izanen dira noiz eta atal horretan adierazitako arrazoiren batengatik ordeztuak direnean.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko urriaren 22an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, abuztuko azken egunetan A-15 autobioako 114. kilometro-puntuan jarduerarik ez egoteko arrazoiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du abuztuko azken egunetan A-15 autobioako 114. kilometro-puntuan jarduerarik ez egoteko arrazoiei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko urriaren 16ko A.O., 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko urriaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du A-15 autobideko Bi Ahizpeko pasabidearen parean harri-lubeta egonkortzeko neurriei buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1. Obra hasi zenetik, lehendabiziko astea alde batera utzita, hamar behargin inguru aritu dira obretan. Abuztuko azken aurreko astean obran guztira zortzi behargin aritu ziren 07:30etatik 19:00ak arte. Abuztuko azken astean, aurreko ordutegi berarekin, hamaika behargin aritu ziren.

Iraileko lehenengo astean, aurrekoan bezala, hamaika behargin. Horrek esan nahi du inoiz ere ez zaiola lan egiteari utzi, are gutxiago abuztuko azken egunetan.

2. Lanaren zati handiena irailaren amaierarako amaitzea aurreikusita zegoen, eta, horrekin, A-15eko erre bat moztu behar zen. Urriaren 9an errepidea jarrizko egoerara itzuli zen. Horrelako zailtasuna duen obra batean, zaila da epea zorrotz ezartzea. Klimatologiak eragin handia izaten du gisa horretako lanetan.

Egonkortu beharreko harri-lubetaren goiko kotetan oraindik ere programatutako lanetako batzuk egiten ari dira. Obraren eremu horretan, konplexutasuna are handiagoa da eta exekutatu beharreko unitate desberdinei segurtasun handienarekin ekin behar zaie, langileentzako arriskuak saiheste aldera. Ezin dira behargin gehiago jarri, garatzen ari den lanaren nolakotasuna dela eta. Aurreikusita dago lanak azaroaren hasierarako bukatzea.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko urriaren 22an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Lan-taldea, Nafarroako Foru Komunitateko Osasun Publikoaren Plan Estrategikoari buruzkoa.

BARNE-FUNTZIONAMENDURAKO ARAUAK

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 113. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen "Nafarroako Foru Komunitateko Osasun Publikoaren Plan Estrategikoari buruzko lan-taldearen barne-funtzionamendurako arauak", zeinak lan-taldeak berak onetsi baitzituen 2009ko azaroaren 16an eginiko bilkuran. Hona testua:

"Lehena. Nafarroako Foru Komunitateko Osasun Publikoaren Plan Estrategikoari buruzko lan-taldearen helburua da txosten bat prestatzea non gai honetako beharrak aztertu eta proposamenak prestatuko baitira.

Behin txostena eginda, Legebiltzarreko Mahaiari igorriko zaio boto partikularrekin batera, aurkeztuko balira, eta hark Batzordeko kideei helaraziko die, eztabaidatu eta bozkatzeko.

Bigarrena. Hona lan-taldea osatuko duten foru parlamentarien zerrenda:

Jesús Javier Marcotegui Ros jauna (UPN)
Ordezkoa: María del Carmen Ferrer Cajal andrea

Asun Fernández de Garaialde
y Lazkano andrea (NaBai)
Ordezkoa: María Luisa Mangado Cortes andrea

María Chivite Navascués andrea (SPN)
Ordezkoa: José Javier Monzón Romé jauna

José Andrés Burguete Torres jauna (CDN)
Ordezkoa: Juan Cruz Alli Aranguren jauna

Ana Figueras Castellano andrea (NEB)
Ordezkoa: Ion Erro Armendáriz jauna

Hirugarrena. Lan-taldeak lehendakaria hautatu du, eta, behar izanez gero, lan-taldeko beste kide batek ordezkatu ahalko du hura. Lan-taldeari laguntzen dion legelaria izanen da lan-taldeko idazkaria, edo, bestela, haren ordezkoa.

Laugarrena. Lan-taldeak boto ponderatuen sistemaren bidez hartuko ditu erabaki guztiak. Horrela, lan-taldeko kide bakoitzak bere parlamentu-taldeak edo foru parlamentarien elkarteak zenbat kide dituen, horrenbeste boto edukiko ditu.

Bosgarrena. Lan-taldeak laguntza eskatu ahalko dio Nafarroako Gobernuari, eta, Legebiltzarreko Lehendakariaren bidez, kargu eta funtzionario eskudunak lan-taldera etor daitezen eskatu ahalko du, bai eta beharrezkoak diren txostenak egin daitezen ere. Orobat eskatu ahalko du beste aditu batzuk ere etor daitezen.

Seigarrena. Lan-taldeak lan egiteko plana ezarriko du, eta lan-taldearen lanak behar bezala egiteko beharrezkotzat jotzen dituen agerraldi eta jarduerak finkatuko ditu. Plan hori Legebiltzarreko Mahaiari jakinaraziko dio.

Zazpigarrena. Lan-taldeak agindu zaion lana bukatu arte egingen du lan, eta lan hori 2010eko maiatzaren 16rako bukatu beharko du; hala ere, epe hori luzatzen ahalko da."

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda